

DIRU ITURRIAK

Diru sarrerak:

Gure diru iturri nagusia aktiboen salmenta izango da, hain zuzen ere, pizzak egiteko makinak dira gure aktiboak, honekin gure irabazien %100 lortuko dugu. Gainera, ordainketa bakarreko diru sarrerak dira.

Diru iturriak:

Enpresa sortzeko hasierako inbertsioak gure esku egongo dira, honez gain mailegu bat eskatuko diogu ING direct bankuari, 1.000.000€-koa. Interesa % 10-koa da.

Prezioa:

Ezaugarrien araberakoa izango da. Prezio orokorra 50 eurotan uztea erabaki dugu eta finkoa izango da, horrela bezero askok erosteko aukera dute.

Prezioa ezartzerako orduan kostuak ere kontuan izan ditugu eta kostu hauek estaltzeko nahikoa dela uste dugu.

Bezeroak:

Merkatuan ez dagoenez horrelako edo antzeko produkturik ez dakigu zenbat ordaintzeko prest dauden, hala ere ezinbestekoa da merkatuaren azterketa egitea ideia bat izateko prezioa ezartzerako orduan.

Aukerarik onena kasu honetan bezeroei inkesta bat egitea izango litzateke datu zehatzak lortzeko eta segurtasunez jakiteko bezeroek duten iritzia gure produktuz.

Hasieran kostu baxuko zerbitzuak erabiliko ditugu ahalik eta gutxien gastatzeko, adibidez, logoaren diseinua egiterakoan gure ideia ulertzen duen diseinatzaile bat kontratatuko dugu denbora eta dirua aurrezteko.

